

Ez-Bai: Bide Iraultzailea

Estatu-rik gabeko Independentziaren aldeko manifestua

SARRERA

2010eko ekainean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Autonomia Estatutua murriztu zuenetik, independentziaren aldeko olatu handi bat sortu da Kataluniako herritarren artean. Komunikabide hegemonikoek eta alderdi politiko gehienek gero eta garrantzia handiagoa eman diote gai horri, eta gero eta jende gehiago atera da kalera Kataluniako autodeterminazioa aldarrikatzera. Ondorioz, transzendentzia historikoa duten Espainiako nazionalismo birzentralizatuak eta Kataluniako nazionalismo sezesionistak gorakada nabaria izan dute eta, urte gutxi batzuetan, fenomeno soziopolitiko bilakatu dira.

Askatasuna nahi dugun guztiok uste dugu lurralde jakin batean bizi den edozein biztanle taldek autodeterminaziorako eskubide legitimoa duela; bai norberaren bizi-baldintzen inguruan erabakitzeke, bai eta norbere mugak zehazterako ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi autodeterminazioa ulertzeko gaur egungo modua, hau da, Estatu-nazioak sortzea denik oinarrizko eskubide hau erabiltzeko bide egokiena. Hori dela eta, ezinbestekoa da honako galdera hau planteatzea: ba al dago Kataluniako auzi independentistaren motibazio positiboek Estatu-nazioaren proposamen hegemonikoak baino hobeto erantzungo dien bide politikorik?

Kataluniako gorakada independentistarekin bat etorri den komunikabideen, parlamentuaren eta plataformen kanpainak xehetasun ugari eman ditu "prozesu soberanista" delakoaren inguruan, baina oinarrizko kontu bat alboratu du: "hirugarren bide" bat ere badagoela Kataluniarentzat, *Espainiar Estatuaren menpe ez egotea, baina, aldi berean, Kataluniarentzat Estatu-nazio berririk ez sortzea helburu duen bidea*. Bide honek tradizio libertarioarekin eta planteamendu iraultzaile osoekin egiten du bat, eta bere helburua gizartearen instituzionalizazio demokratikoaren alde dagoen estatu-entitate oro ezeztatzea da.

Nazionalismoetan sortzen diren eta lurralde-konfliktoak nahiz gaur egungo beste problematika batzuk areagotzen dituzten arazo ekonomikoak, kulturalak eta politikoak konpontzeko biderik egokiena Ez-Bai (Estatua Ez, Independentzia

Bai) aukera izan daitekeela erakustea da manifestu honen eta berarekin bat datorren kanpainaren helburua, nahiz eta bide hau ez den gaur egungo kultura-paradigmaren barruan *sartzen eta Parlamentuko alderdiek zein plataforma independentistek ahaztu egin duten.*

ADIERAZPENA

Manifestu hau sinatzen dugun pertsonon eta kolektiboon helburu nagusia gizakiak onbideratzea eta gizartea berreraikitzea da; besteak beste, autonomia, komunitatea, auzolana eta harmonia ekologikoaren aldeko printzipioetan oinarrituz. Kataluniako estatismo-nazional independentistaren gorakada boterearen eliteek eta haien “komunikabideek” biziki bultzatutako fenomeno da, baina, aldi berean, fenomeno horrek aldaketa sozialerako eta gure bizien jabetza berreskuratzeko borondate positibo eta herrikoi bat bideratzen du. Hori dela eta, beharrezkoa ikusten dugu gaur egungo instituzioen eta baloreen inguruko hausnarketa sakon eta dialogo sozial bat sustatzea, eta, horrekin batera, Katalunia eta Espainiaren artean dauden mugen, instituzioen eta kultura nazionalaren arazoa konpontzeko nazio-estatu eredutik aldentzen diren beste bide alternatiboak ere badirela azaltzea. Horregatik, adierazten dugu:

I. Uste dugu A9ko erreferendumeko lehenengo galderari (“Katalunia Estatu izatea nahi duzu?”) kontzientziaz erantzuteko, ezinbestekoa dela Kataluniako herritarrok argi izatea zein den Estatu instituzioaren izaera. XVIII eta XIX mendeetatik hona eta garaian garaiko egoeraren arabera, Estatu modernoak eredu parlamentario nahiz diktatorialak, eta gobernu ezkertiar nahiz eskuindarrak bereganatu ditu; baina beti izaera berbera izan du: egitura oligarkiko eta burokratiko markatu bat, gizartearengandik urrun eta beti haren gainetik egon dena. Estatu moderno gaur egungo krisi egoeraren erantzule nagusietako bat da; autore desberdin askok azaldu dutenez, izaera suntsitzailea, zapaltzailea, oldarkorra eta maltzurra du. Munduan ez dago Estaturik ez dagoena nolabait odolez zikindua eta bidegabekeriaz beteta; eta denek funtzionatzen dute gizakiak eta natura engainatuz eta esplotatuz. Hori guztiagatik ez zaigu aukera egokiena iruditzen sutik irtetea (Espainiar Estatutik askatzea) errautsetara erortzeko (kataluniar Estatua sortzeko). Gizartea egituratzeko modu hobekak daude; hori dela eta, Kataluniako herritarrek modu horien inguruan serioki hausnar dezaten nahi dugu, kontzientziaz erabakitzeko nola egituratu nahi dugun gure gizartea.

II. Galdetzen dugu: Katalunia “herrialde normal bat” izatea nahi al dugu? Hori da Omniu Cultural-ak bultzatzen duen propaganda-kanpaina masiboa, baina... Zer da gaur egungo “normaltasuna”? Bost umetatik batek gosea pasatzen du, eta aldi berean, janari tona pila zaborretara botatzen dira herrialde “normalen” legeen eta korporazio “normalen” interesen erruz. Animaliak eta landareak abiada bizian ari dira desagertzen, herrialde “normalen” ekintza “normalen” erruz. Jendea etxerik gabe eta etxeak jenderik gabe uztea ere “normala” dirudi herrialde “normal” batean. Mila adibide jar ditzakegu herrialde modernoan “normaltasuna” zein zitala den frogatzeko. “Normaltasunetik” uste osoz irtenda soilik konpon daiteke gaur egungo munduko basakeria eta miseria; izan ere, Einstenek zioen moduan, “beti berdina egitea eta emaitza ezberdinak espero izatea da erokeria”. Kataluniar Estatua guztiz bat dator gaur egungo munduaren normaltasunarekin, eta horregatik ezin dugu emaitza ezberdinak espero. Emaitza ezberdinak nahi baditugu, antolamendu politiko, sozial eta ekonomiko berriak bilatu behar ditugu; aukera berritzaile eta aurrerakoiak, sortzaile eta egokiak, ausart eta eskuzabalak, askatzaile eta solidarioak, zentzudun eta suspergarriak geureganatu behar ditugu, eta gaur egungo “normaltasun” negargarri honetatik irten.

III. Aurka ageri gara espainiar Estatuko nazionalismoak Kataluniako nazioari historikoki egindako zapalketaren aurrean, baina ez dugu uste horren aurka defendatzeko modu egokiena kataluniar itxura duen beste nazionalismo estatista batean erortzea denik; zapalkuntza nazionalak benetan gairatzeko mugimendu iraultzaile oso eta global bat sortu behar da, Estatuaren aurka dagoena; izan ere, Estatua bera da arazo anitzen eragile, beste egitura zapaltzaile eta kaltegarriekin batera (kapitalismoa, patriarkatua, etab.). Horrela soilik lortuko dugu gaur egungo krisi orokor hau gairatzea, eta, aldi berean, herri eta eskualdeetako kultura benetan askeak, biziak, egiazkoak, herrikoiak, sinergiakoak eta errespetuzkoak garatzea.

IV. Uste dugu historian Katalunia libreen eta independenteen izan den unea 1936ko iraultzan izan dela. Mundu osoan ezaguna den gertaera historikoa da hori; izan ere, iraultzaileen hutsegiteez eta altxamendu faxistak eragindako egoera kaltegarriez gain, Katalunian eta Aragoi gizakien erabateko aldaketa erradikala eman zen, eta bertan, langileen eta herritarren asanbladek egitura oligarkikoen zati handi bat ordezkatu zuten. Horrela, 1936ko udan hasi eta 1937ko maiatza arte, Kataluniak benetako askatasun eta independentzia positibo baterantz aurrera egin zuen, George Orwellek “Kataluniaren omenez” liburuan adierazi zuen moduan, beste testigu eta analista batzuen artean. Aldiz, gaur egungo Kataluniako elite politikoek bultzatzen duten “Katalunia aske eta independentea” ilusio bat da, eta hainbeste eskatzen duten “erabakitze eskubidea” ordezeko demagogiko bat.

V. Salatzen dugu A9ko erreferendumak ez dituela prozesu demokratikoen gutxieneko baldintzak betetzen. Hasteko, galderak Ez-Bai aukera baztertzen du, eta, ondorioz, ikuspuntu libertarioen adierazpen askatasunerako eskubide demokratikoa urratzen du, Katalunian tradizio nabarmena duen posizionamendua dena, jakina denez. Horrez gain, galderaren edukia eta erreferendumeko beste hainbat gai garrantzitsu ez dira prozesu benetan demokratiko baten bidez erabaki; hau da, herriak libreki, zuzenean eta berdintasunez parte hartuz. Horrelako prozesu bat izan balitz, jakina da Ez-Bai aukeraren aldekoak, adierazpen askatasuna errespetatzen dutenen babesarekin batera, “Estatuari Ez, Independentziari Bai” aukera erreferendumeko erantzun posibleen artean egotea proposatuko genukeela. Azkenik, honek guztiak agerian uzten du erreferendumaren benetako izaera: espektakulu sasi-demokratiko bat da, instituzio oligarkiko batek, hau da, Parlamentuak prestatua, eta Estatu nahiz merkatuko eliteen esku dauden komunikabide hegemonikoek jendarteratzen dutena.

VI. Ez gaude ados Kataluniako Independista Ezkertiarrek Estatuaren inguruan duten ustearekin, izan ere, “guztia aldatzeko” Estatu katalan bat sortzea benetan pauso egokia dela diote. Horrekin lotuta, beharrezkoa da gogoratzea XX. mendearen bigarren erdialdean, ezkerak Asia, Afrika eta Latinoamerikako herrialde berrietan jarritako esperantza eta ilusioa ministerioetako korridoreetan agortu eta gogogabetu zela. Kataluniar Estatu bat sortzeak ere, ez du inondik inora ziurtatzen pasuo benetan askatzailea izango denik. Are gehiago, pauso horrek alderdi negatibo batzuk ditu: Estatu-aparatuak Katalunian onarpen eta babes sozial handiagoa lortzea, eta horrek oinarrizko instituzio oligarkiko hori indartuko luke. Bestalde, ez dugu bat Kataluniako Independista Ezkertiarrek eta sozialdemokrazia erradikaleko (Prozesu Konstituziogilea) beste partidu batzuek defenditzen duten ideiarekin; hau da, gizartea aldatzeko Estatu-boterearen egiturak erabiltzea beharrezkoa edo/eta desiragarria dela pentsatzearekin. Azken mende honetan, mundu osoko alderdi sozialdemokratikoen ibilbideak agerian utzi du sozialdemokrazia erradikalak, hau da, Estatu-aparatuaren bidez “iraultza antikapitalista” bat gauzatzeko estrategia gisa ulertzen den horrek, hainbat arrazoigatik porrot egiten duela benetako sozialismo demokratiko bat lortzeko helburuz, ordena modu erradikal eta gradualean eraldatzeko saiakera horretan. Egoerarik onenean, estrategia horren bidez hobekuntza partzialak, azalekoak eta, askotan, galkorrak lor daitezke; Egoerarik latzenean, berriz, erreakzionarioa izan daiteke; izan ere, autonomia, deszentralizazioa, asanbladak eta liberalizazio global bat bultzatu beharrean, eraldaketa erradikalerako herritarren nahia bereganatu, xurgatu, nahastu neutralizatu, eta Estatuaren elementuak (alderdiak, parlamentua, zentralizazioa, etab.) indartu daitezkeelako.

VII. Proposatzen duguna Herri Asanblada Konfederatuak sortzea da, gaur egungo Estatuaren ordezkatzeko antolamendu politiko gisa. Herri Asanblada eztabaidatzeko, erabakitze eta betearazteko instituzioa da, eta herri edo auzoen moduko eremu geografiko jakin bateko herritar guztiek hartu dezakete parte, adierazpen askatasun osoz, baldintza beretan, eta anaitasun eta komunitate espiritu batekin. Gizarte benetan demokratiko baten oinarritzeko atal politikoa da. Elkarren artean koordinatu eta erabaki bateratuak hartzeko, Herri Asanbladek konfederazioak sor ditzakete, hau da, Herri Asanbladetan aukeratutako delegatuen asanbladak, eta bertako delegatu horiek Herri Asanbladen agindupean egon eta guztiz ezeztagarriak izango dira. Historian zehar, munduko leku askotan antolatu izan dira horrela demokrazia eraginkor eta erabilgarri bat lortzeko biztanleria kopuru handiko lurralde-eremu zabaletan. Hala ere, Herri Asanblada Konfederatuak sortzea eta indartzea ez da nahikoa herriaren burujabetza osoa lortzeko. Arrakasta izateko, prozesu honekin batera sektore ekonomiko komunitario eta autogestionatu bat sortu behar da; horrela, demokrazia politikoaz gain, ekonomikoa eta laborala ere indartu egingo lirateke. Horrez gain, prozesu honekin batera, beharrezkoa da gizakion kulturaren alor guztietan funtsetik aldatzea.

VIII. Kataluniako nahiz munduko beste hiri, herri edo eskualdeak Estatuaren nagusitasunetik bereiztearen **alde agertzen gara**. Horri dagokionez, kontuan hartzen dugu historiako irakaspen garrantzitsu bat: klase partitokratikoaren hipokresiak agerian uzten dituela esana eta eginaren, eta oraina eta geroaren kontraesanak. Hori dela eta, gaur egun “erabakitze eskubidearen” eta “autodeterminazio eskubidearen” alde egiten duten Parlamentuko alderdiek noizbait Estatuaren aparatua berri bat kudeatzen badute, autodeterminazio iraultzailerako eskubidearen aurka ageriko dira seguru aski. Bestela esanda, Kataluniako eskualde batek kataluniar Estatu hipotetikotik bereizi nahi badu, eta Herri Asanbladen Konfederazio batean eta ekonomia sare komunitario eta autogestionatu batean oinarritutako burujabetza bat ezarri nahi badu, nahiko agerikoa da kataluniar Estatuaren, edozein Estatuaren moduan, horren aurka ageriko dela; izan ere, nagusitasuna Estatuaren ardatza da, eta ardatz horretan, “autodeterminazio eskubideak” eta “erabakitze eskubideak” ez dute lekurik, gaur egungo konstituzioetako beste hainbat klausulek bezalaxe.

IX. Ulertzen dugu independentzia oinarritzeko giza balore gisa, eta hori benetan gauzatzeko, garrantzi bereko beste balore bat ere beharrezkoa da: interdependentzia. Hori dela eta, pertsona, kolektibo, herri, hiri, eskualde eta herrialde oro independente izatearen alde gaude, eta, aldi berean, besteekiko interdependente izatearen alde. Dena den, independentzia eta interdependentziaren baloreak osotasunean gauzatzeko, beharrezkoa da benetako demokrazia bat; gizartearen antolatzeko modu berri bat, non pertsona orok zuzenean eta berdintasunean parte hartu ahal izango duen afera

politikoetan eta norberari eragiten dioten erabakietan. Estatu “ordezkari” bat eta merkatu-ekonomia kapitalista duen sistema batean, independentzia eta interdependentzia ahuldu egiten dira etengabean eta modu askotan; izan ere, sistema horren dinamika da gizartean ezarritako egituren mendekotasuna eragitea eta botere oligarkikoen interesak errespetatzea.

X. Pentsatzen dugu funtsezko aldaketa handi bat, hau da, benetako iraultza bat dela, mendeetan zehar bizi izan dugun dimentsio anitzeko krisi hau (ekonomikoa, politikoa, soziala, ekologikoa, etab.) gainditzeko bide bakarra. Badakigu horrelako izaera eta sakonerako eraldaketa batek zailtasun handiak dituela, baina hain sakona eta zabala ez den beste edozein planteamendu, kasurik onenean, ez da nahikoa izango, eta kasurik latzenean, kaltegarria izango da. Gaur egungo munduaren egoera kritikoa ikusita, gure barruan dugun onena ateratzeko beharra ikusten dugu ekintza eraldatzaile honetan, eta arrakasta lortzeko, mundu osoko generazio eta sektore orotara iritsi behar du. Ekintza hau diseinatu eta pentsatzeko, kolektibo eta pertsona batzuk “Iraultza Osoa” kontzeptua erabiltzen hasi dira berriki, hau da: *gizakiaren barnea aldatzeaz gain, pertsonak zapaltzen dituzten kanpoko baldintzak ere aldatuko dituen iraultza. Etorkizun ireki eta ezberdin batean pentsatuz gauzatu behar da, baina orain eta hemen ere ikustarazi behar da, lotzen gaituzten kateak hautsiz.*” (Félix García Moriyón, 2008). Bestela esanda, *“gizarteko esparru guztien eraldaketa-prozesu historiko bat da, eta ez dago boterea eskuratzera bideratua, gizarte berri bat eraikitzen baizik.”* (Enric Duran, 2013). Kataluniaren kasuan, Iraultza Osoaren proiektuak *“tradizioa eta aldaketa iraultzailea bateratzen ditu, iragana eta etorkizuna batuz, historiako egia Katalunia berri bat sortzeko erabiliz, Espainia edo Frantziarekiko menpekotasunik gabe, kapital handirik gabe, Estatu izaerarik gabe, politikari profesionalik edo alderdi politikorik gabe, kontzientzia-askatasuna, askatasun politikoa eta askatasun zibilarekin, hizkuntza, historia eta kultura nazional berritu eta garatuarekin.”* (Félix Rodrigo Mora, 2013). Iraultza hau presazkoa eta garrantzitsua dela diogu, izan ere, *“gaur egungo erregimena maila autosuntsitzaile batera iritsi da, eta gizakion bizikidetzaren irrazionalki eragozteaz gain, gure espeziearen eta Lurra osatzen duten espezien biziraupena arriskuan jartzen du.”* (Antón Dké, 2013). Aurreko mendeko eraldaketa ikuspuntuak uste ez zuten bezala, orain geroz eta nabariagoa da *“Iraultza Osoaren indar eragile nagusia ez direla pertsonen interes bereziak, berehalakoak eta materialak izango, pertsonen barneko aberastasuna eta kalitate morala baizik”* (Blai Dalmau, 2013). Antolatzeke *“beharrezkoa da Iraultza Osoa tokian tokiko taldeek gauzatzea, deszentralizazioaren alde eta tokian tokiko ekintzaren alde egitea, baina ikuspuntu eta pentsamendu global batekin”* (Integra Revolució, 2013).

EKINTZA

A9ko erreferenduma egingo bada, Ez-Bai aldekoek hainbat aukera ditugu eskuartean:

Abstentzio aktiboa erreferendumaren aurka agertzeko modu gisa.

Historian zehar, abstentzio aktiboaren bidez fraude “demokratikoen” aurka egin eta indarrean dauden botere-egiturekin ez kooperatzeko nahia azaldu izan da. Izenak berak dioen moduan, aukera honekin bozkatzeari uko egiten diogula adierazten dugu, eta aldi berean, ekintza politiko bat egiten dugu, bakarka edo kolektiboki, bozketarekin edo prozesuarekin berarekin zerikusia duena. Hori horrela izanik, abstentzio aktiboaren bidea aukeratzen badugu, A9an eta inguruko egunetan ekintza politiko batzuk egingo dira, edozein bozkak baino askoz ere garrantzia eta eraginkortasun burujabe handiagoa izan dezaketenak. Hona hemen iradokizun batzuk: gure lagunekin, ezagunekin edo/eta familiako kideekin bilera batzuk egitea gai hauen inguruan hausnartu eta ikertzeko; manifestu hau eta gai honekin lotura duten beste testu batzuk zabaltzea paperean edo digitalki; ikasketa-talde bat sortzea Estatuaren ordezkotzat izan daitezkeen molde soziopolitikoak buruz kolektiboki ikasteko; herrien burujabetza lortzeko bide iraultzaile honen alde lanean ari den erakunde edo ekimen bati ekarpen bat egitea; etab. Ekintza horiek guztiak abstentzio aktiboaren markoan egokiak dira, baina jarraian aipatuko ditugun beste aukera hauetako bat hautatzen duten pertsonak ere gauzatu ditzakete ekintza horiek, noski, eta hori egitera bultzatzen diegu.

Ez-Bai bozkatzea, baliozkoa izan ez arren. Argi eta garbi idatz dezakegu Ez-Bai paperean, nahiz eta baliorik gabeko bozka izan. Erreferendumean parte hartzeko modu bat da, eta horrela Kataluniaren inguruko gaitan gure inplikazio politikoa erakusten dugu, baina eskainitako aukerekin ez dugula bat egiten adierazten dugu. Pentsatzen dugunarekin bat eginez bozkatzea da ideia, nahiz eta gaur egun ezarritako sistema oligarkikoak aukera hori ez onartu.

Bai-Bai bozkatu, eta gaitz erdi. Bai-Bai ere bozkatu dezakegu, baina Kataluniako elite independentistek eta haien zerbitzutara dauden komunikabideek bultzatzen dutenarekiko jarrera eta kontzientzia oso ezberdin batekin. Bai-Bai bozkatzeari adierazten duguna da, erreferendum honetan eliteek gure esku utzi dituzten aukeren artean, guztiak negatiboak direnak, kataluniar Estatu bat osatzea hobea izango litzatekeela Kataluniak Espainiaren

itzalpean jarraitzea baino. Bai-Bai bozkatzeak benetan Ez-Bai aukeraren alde gaudela esan nahi du, eta beraz, hori izango da aukera dugun bakoitzean publikoki defendatuko duguna; bide politiko horretara bideratu nahi dugu gure energia politikoa. Kataluniar Estatu batek ez digu inongo ilusiorik egiten, eta Estatu bat berak ere ez du herriaren babes gogotsurik merezi, baina dena den, egoera ikusita, positiboki bozkatzen dugu emaitza okerrena ekiditeko, hau da, espainiar Estautaren status quo-a mantentzea ekiditeko.

Espainiar Estatuak erreferenduma debekatzeko badu, eta ondorioz, desobedientziaren bidea erabili eta herriak antolatzen badu, kutzak jarriko dituzten tokian tokiko talde guztiei Ez-Bai aukera gehitzeko eta ikusgai egiteko eskatzen diegu. Halaber, posible den heinean, kutzak elkartze eta deliberazio politikorako gune bilakatzea eskatzen dugu, eta bertan Herri Asanbladak progresiboki sortzen hasteko aukera baloratzea, kezkatzen gaituen ororen inguruan erabakitze eskubidea modu egoki eta eraginkorrean ezartzeko.

AMAIERA

Zorionez gaur egungo “normaltasuna” baino askoz ere hobea izango den beste mundu posible baten haziak ereiten ari dira toki askotan. Planeta osoan, Katalunia izango da, seguruenik, mundua aldatzeko sormen gehien duen tokietako bat, bere ekimen berritzaileei esker, azken bosturtekoan izugarri loratu dena. Milaka katalanek hartzen dugu parte proiektu desberdinetan, hala nola: truke-sareetan, multierreferendumetan, lurralderaren defentsaren aldeko borroketan, kooperatibetan, elkarbizitza-komunitateetan, ekintza politikorako taldeetan, birsortze agroekologikoaren inguruko ikasketa-taldeetan, sindikatu libertarioetan, tokian tokiko asanbladetan, eskola askeetan, kontsumo-taldeetan, etab. Ekintza horiek eta antzeko ekintza batzuk, nahiz eta oraindik txikiak izan, merkatu kapitalistaren eta Estatuko buroraziaren kontrapisu nabariak bilakatu dira dagoeneko.

Baina urrutiago ere iritsi gaitzake, noski. Ideia eta ekintza egokiekin, aurrerapausoak egin ditzakegu gizarte desberdin, erradikalki hobe eta erabat berri baten oinarriak eraikitzeko. Hori lortzeko, guztia zalantzan jarri behar dugu, bizitzen ikasi behar dugu berriro, eta auto-kritika eta gaintitze pertsonala landu behar ditugu. Iritsi da garaia modu sotilean hitz egiteko, sakonki hausnartzeko, autonomoki ikasteko eta argi eta garbi eztabaidatzeko, eta horrela mahai gainean ditugun hainbat arazoei irtenbidea bilatzeko. Planteatu behar dugun gai politiko oinarrizkoena eta beharrezkoena gaur egun ezarrita dagoen sistemaren instantziek gehien ezkututzen eta ekiditen duten hori da: “Posible eta desiragarria al da Estaturik gabe bizitzea?” Herritik eta

herriarentzat izango den politika bat egiteko garaia da, plazetan sortutako politika bat, 2011ko M15 mugimendua bezala, baina oraingo honetan galdera hori serioki hartuz. Zein gizarte nahi dugun sakonki galdetzeko eta hori posible egiteko garaia iritsi da, hemen eta orain!

**Katalunia,
2014ko irailaren 11a.**

OHARRA. Manifestu hau bertako ideiekin bat egiten duten pertsona, kolektibo eta erakunde guztiek sina dezakete. Sinatzeko, atxikimendu dokumentua bete behar da www.no-si.cat orrialdean. Iruzkinik egin nahi bada, manifestu honen behealdean dagoen iruzkinen atalean egin daiteke. Manifestuaren edukiaren inguruko hausnarketa, proposamen, sentimendu, informazio edo erreserba bat egin edo adierazi nahi izanez gero, dokumentu batean idatzi eta bidali pataforma@no-si.cat helbidera. Hausnarketa horiek publiko egingo dira A9a baina lehenago argitaratuko den bilduma batean.